

TOLOSA ▶

«Lehia uzteko garaia»

Beldarrainek utzi ditu wu-shu txapelketak ▶ 3



SHOLE MARTIN ▶
ANTOLATZAILEA

«Dibulgaio eta sentsibilizazio topaketak dira»

Transmisio «aberatsa» izaten dela dio ▶ 2

Zumardi jardunaldiekin «pozik» dago antolaketa

BETETA ▶ Ikus-entzulego «fidela» dutela frogatu da aurten ere: herritarrak eta adituak batera

GAIA ▶ Ez dute baztertzen datorren urtean gai berari heltzea «gehiagorako ematen duelako» ▶ 2

ARANTZAZU AZPIROZ ▶ EH-KO TXAPELDUNA

«Izugarrizko ilusioa egingo lidake Mundukoa edo Olinpiar Jokoak irabazteak»

Txirrindulari berastegiarrak elite mailako txapelduna gelditu berri da ▶ 6

DANI GIBELALDE



ALEGIA ▶

Aralar Institutuko ikasleak, Gipuzkoako txapeldun

Euskal soin jardueren alorrean irabazi dute DBH 1. mailako ikasleek ▶ 7



Taldea sokatiran. HITZA

IRURA ▶

Erakusketa, hitzaldiak eta jokoak izango dira Kultur Astean

Datorren larunbatetik hilaren 23 arte egingo da; argazki lehiaketa izango da ▶ 5

ZUMARDI 15. NATUR JARDUNALDIAK ▶



Felix Rodriguez de la Fuente, hedapena eta konpromisoa. OLAI A ESKITXABEL



Sebastian Alvaro: Tibetarrak, altitudera hobekien egokitutako herria. JOXEMI SAIZAR



Jose Ramon Agirre, Marron: Mongolia. Estepako lautadak. JOXEMI SAIZAR



Eduardo Martinez de Pison: Bidaariak mendietara. JOXEMI SAIZAR



Joseph M. Palau: Basamortuak: bidea izarretan idazten den lekua. KLISK



Abel Muñiz Ortega: Amazoniako herriak eta garapen jasangarria. Manu Biosferako erreserbako eredu. J. SAIZAR

Mugak zabalduz hurrengoari

Kritika konstruktiboa ginez, «beti hobetu daitekeelako», pozik daude TEE-koak

LEIRE MONTES

Amaitu berri dira Zumardi 15. Natur Jardunaldiak, eta Tolosako Ekinbide Etxeko (TEE-CIT) ordezkariak «pozik» dira. Kritika konstruktiboa egiten du Shole Martin Zumardiko zuzendariak, «beti hobetu daitekeelako», baina kontent da eta balantze ona egiten du aurten-topaketaz.

IKUS-ENTZULEGOA

Herritarren parte-hartzea beti handia izaten dela dio Martinek. «Kultur Etxea bete egin da aurten ere. Zumardik ikus-entzulego fidela duela frogatzen da urtero. Jendea ez da nekatzen, eta pentsatzen dugu gauzak ondo egiten direlako gertatzen dela hori».

Izaera askotako ikus-entzulegoa da nagusi. «Nahasketa izaten da urtero: herritarrak eta adituak eta teknikoak batera izaten dira. Hasieratik esan izan dugu Zumardi jardunaldi teknikoak baino dibulgazio eta sentsibilazio topaketak direla. Eta apustu horrekin jarraitu nahi dugu».

Adinari dagokionean ere,

aniztasuna aipatu nahi izan du. Sebastian Alvaroren hitzaldirak, batez ere, gazte dezentek erakarri zuten. Helduen eta adinako jendearen presentzia oso garrantzitsutzat jo du, era berean: «Egunerokotasuna duten gaiekiko interesa dutela azaltzen du horrek; eta hori oso positiboa da».

Jendeak kontsulta asko egin dituela azaldu du, bestalde: «Hemen bidaiekiko sentsibilitate handia dago, eta egindako galderetan nabaritu da. Transmisioa aberatsa izaten da beti, eta aurten are gehiago».

HIZLARIAK

Ezagunak diren hizlariak ekaritzea izan da hasieratik Zumardiko lan taldearen erronka eta, horrek duen harrera ikusita, hurrengoetan ere hala jarraituko dutela dio Martinek. «Hedabideen bidez ezagunak direnak jendearen arreta errazago pizten dutela ikusi dugu urtetik urtera».

Aurten hizlarien maila homogeneoa izan da, eta ikus-entzulegoaren kopurua nabaritu da. «Guztiengandik espero genuena jaso dugu».

Sebastian Alvaro. «Ezaguna izanik, jende asko erakarri zuten. Aurkeztu zuten erreportaia benetan ziragarria izan zen. Arlo tekniko eta gizatiarra jorratu zituen».

Jose Ramon Agirre, 'Marron'. «Hark bizitakoaren testigantza interesgarria ekarri zuen gurea. Mongoliako herria aurkitzea izan zen denontzat».

Eduardo Martinez de Pison. «Hiru urte pasatu ditugu haren atzetik. Askok daki, eta ikus-entzuleek hori baloratzen jakin zuten: galderak, kontsultak, esker oneko hitzak...»

Joseph M. Palau. «Ezusteko pozgarria izan zen. Gustuko duena nola maite duen ikusten gozatu genuen».

Abel Muñiz Ortega. «Amazoniako gure jakinmina areagotu egin zuen. Zaila da egiten ari direna, baina pixkanaka doaz aurrera».

OMENALDIA

«Felix Rodriguez de la Fuenteri egindako omenaldiak Joaquin Araujori eta naturaren alde lan egiten ari diren guztiei omenaldia ere bada. Antxon Bandresek esan zigun behin

hark eta Linazasorok inguru-menari buruzko lehen hitzaldia 1970an eskaini zutela. Haei ere, eta handik onan lan egin duten guztiei gure omene da».

IKASLEEN SAIOAK

Ikasleei zuzendutako saioekin ere «oso pozik» agertu da. «Gazteen harrera ona izan da. Helduek baino lotsa gutxiago erakutsi dute galderak egiteko. Gaia gazteei gerturatzea zen gure nahia, eta pozik gaude».

ERAKUSKETA

Dendek «jarrera ona» erakutsi dute. Erakusketa kalera atera, jendeari gerturatu eta ikusteko lana erraztu nahi zuten TEE-koek ekimenarekin, eta haien iritziz «erantzun ona» izan du.

LIBURUA

Joaquin Araujoren *Agua* liburua argitaratu dute egileak berak, Zumardik eta IKT-k. Martinek naturzalearen jarrera eskertu nahi du: «Bere eskubi-deak eman dizkio Zumardiri liburua argitaratu dezan, eta bihotzez eskertzen diogu». Liburua



SHOLE MARTIN
ZUMARDI-KO ZUZENDARIA

«Gehiago entzuteko eta ikusteko gogoarekin geratu gara; ez dugu baztertzen berriro gai berari heltzea»

10 eurotan dago salgai, eta TEE-ren web orrian eskatu daiteke (www.cittolosa.com).

ARGAZKI RALLYA

«Gaztetxo asko» animatu dira aurten ere. Triangulo kafetegian egon dira ikusgai lanak. «Parte-hartzaileekin txangoren bat egin nahi dugu orain».

DATORREN URTERAKO, ZER?

«Bost egunek ez dute askorako ematen, eta gehiago entzuteko eta ikusteko gogoarekin geratu gara. Ez dugu baztertzen datorren urtean gai berari heltzea». Urtero jardunaldietan izen eta proposamen berriak sortzen zaizkie, eta «ateak zabalik» utzi nahi dizkiote etorkizunari.

KIROLA ▶

Jose Mari Beldarrainek agur esan die wu-shuko txapelketei

Hamahiru urte eman ditu txapelketatik txapelketara, eta «lehia uzteko garaia» dela dio; hala ere, wu-shua egiteari ez diola utziko esan du kirolari tolosarrak

IRATXE ETXEBESTE

Batetik bestera, orain Euskadiko Txapelketan, gero Europakoan, Mundukoan... Hamahiru urtez wu-shuko txapelketarik gorenetan lehiatzen jardun eta gero, agur esan die Jose Mari Beldarrain kirolari tolosarrak txapelketei. Irabaziak ditu Euskadiko eta Espainiako Txapelketak hainbat alditan, eta Europakoan eta Mundukoan ez du lan makala egin urte horietan guztietan —lehen euskalduna izan zen Munduko Txapelketa batean domina lortzen—, baina «heldu da garaia lehia alde batera uzteko». Adinak hala agintzen duelako batetik, eta aita izango delako bestetik, kantxatik urruntzea erabaki du tolosarrak.

Entrenatzen jarraituko du Beldarrainek hala ere, eta baita txapelketetan jarraituko dutenei laguntzen eta hasiberriak irakasten ere. Lehia uzteak ez baitu esan nahi hainbeste garaipen eman dion kirola egiteari utziko dionik. Eta txapeldu handien antzera, hamahiru urteetan lortu dituen garaipen horiek guztiak eskaini egin nahi dizkio Beldarrainek hainbat laguni: «Eskerrak eman nahi dizkiet, lehenik eta behin, kirol honetan laguntza eman didaten guztiei. Bere garaian Tolosan aritu zirenei, gimnasioko lagunei, irakasleei... Ildo



Jose Mari Beldarrain, Italian, wu-shuko borroka bat irabazi ostean. TOLOSALDEKO HITZA

horretatik, lortutako garaipenak haiei guztiei eskaini nahi dizkiet agur gisa».

Senitartekoei eskaini nahi dizkie, baina, garaipenik handienak, eta bereziki bere amari eta lehengusu Mieltxori. orain bi urte zendu zirelako biak. «Une gogorak» pasatu zituela, baina, era berean, haiek oroimenean izateak aurrera egiteko indarra eman diola dio Beldarrainek: «Une gogor horietatik irtetzen lagundu dit hein handi batean kirol honek, eta

lortutako garaipen guztiak haien izateko nahi dut».

Garaipenak eskaini nahi, eta nahiak beteta ikusi gura. Beldarrainek eskuratu ezin izan duena bere kideek izan dezaten nahi du: euskal selekzioa. «Kirolari euskaldunek, berandu baino lehen, mundu mailako txapelketa garrantzitsuetan Euskadiko selekzioarekin aritzea», hain zuzen. Berak parte hartu duen txapelketetan Euskadiko selekzioarekin jardun ahal izan ez duen arren bere ki-

deek hala egitea desio duela esan du tolosarrak, nahiz eta badakien hori lortzea ez dela «hain erraza».

Wu-shuko hamahiru urteko borroka alde batera utzi du, beraz, Beldarrainek. Atzean utzi ditu hainbat eta hainbat lehia, eta lehia horietan lortutako ehunka garaipen. Shuai-Jiao, full-contact, kick boxing eta boxeoa egindako saiakerak ere albora utzi ditu, modalitate bakoitzaren gaziak eta gozoak dastatuta.

HERRI URRATS ▶

Herri Urratsera joateko autobus Galtzaundik

Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatu ditu igandean, hilak 9, Iparraldeko ikastolen alde Senperen egingo den festara, Herri Urratsera, joateko. Autobusean izena emateko azken eguna ostirala izango da, eta ordua arte arratsaldero eman daiteke, 19:00etatik 21:00etara. Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa etorbidia, 6 behea).

GIZARTEA ▶

Tolosan bizi diren ataundarrentzat, afarirako deialdia

Tolosan bizi diren ataundarrek afaria izango dute hilaren 28an, ostiralez, Fronton kafetegian. 21:00ak alderako egin dute egun horretan hitzordua, eta izena emateko epea zabalik da. 943 65 29 41 telefono zenbakira deitu behar da horretarako. Iaz antolatu zuten ekimena lehenengo, eta hemeretzi lagun bildu ziren afaltzeko.

GIZARTEA ▶

Bidegorrien eta autobusen inguruko bilera

Tolosako Udaleko Agenda 21, Partaidetza eta Ingurumen departamentuak bilera egingo du gaur hiribusaren eta bidegorrien inguruan hitz egiteko. Besteak beste, autobusen kudeaketaz eta erabiltzaileen kopuruaz mintzatuko dira bertan, eta baita bidegorrien proiektuko berrikuntzen gainean ere. Udalarekin izango da bilera, 19:00etan. Herritar guztiei gonbitea egin die Udalak.

JUBILATUAK ▶

Bazkarirako izena emateko azken eguna gaur

Haritze elkarteak bazkaria antolatu du iganderako; bazkalosteant dantzaldia izango da Iribarren taldearekin. Bazkideek 12 euro ordaindu behar dute, eta gainerakoek 15. Izena emateko azken eguna da gaur, eta 12:30ak baino lehen eman behar da, elkarrean egoitzan.

PALMARESA ▶

Hamahiru urte eman ditu Jose Mari Beldarrain kirolari tolosarrak wu-shuko konbate modalitatean lehiatzen. Bestelako modalitateak ere ez ditu alde batera utzi nahi izan urte horietan, eta besteak beste, kick-boxing eta full-contact-ean aritutakoa da. Euskadiko, Espainiako eta Europako txapelketetan lan bikaina eginda, bestelako txapelketetan ere jardun izan du: klubaren artekoetan, openetan, Gabonetako txapelketetan....

WU-SHU

- ▶ Euskadiko Txapelketa. 13 aldiz irabazi du.
- ▶ Espainiako Txapelketa.

Txapeldu. 7 aldiz.

Txapelduorde. 4 aldiz.

▶ **Europako Txapelketa.**

Alemania, 1994: txapelduorde.

Holanda, 2000: laugarren.

▶ **Munduko Txapelketa.**

Malasia, 1993: txapelduorde.

AEB, 1995: bosgarren.

▶ **Munduko Kopa.**

Italia, 1999: txapeldu

Kung-Fun.

▶ **Open-ak.**

Paris, 1994: txapeldu izan zen arte martzialen open-ean.

▶ **Txapelduen Kopa.**

Bartzelona, 1996: txapeldu.

Bartzelona, 1997: Hirugarren, arte martzial ezberdinetan.

FULL-CONTACT

- ▶ **Txapelketak.** Europako eta



Jose Mari Beldarrain. HITZA

munduko txapelduen kontra jardun izan du.

SHUAI-JIAO

- ▶ **Espainiako Txapelketa.** Bitan izan da irabazle.

KICK BOXING

- ▶ **Espainiako Txapelketa.** **Madril, 1996:** Txapelduorde. kick-boxing-ean munduko onenen kontra jardun izan du askotan, emaitza onak lortuz.

BOXEOA

- ▶ **Afizionatu milan.** Hogeita hiru borrokatan hartu du parte hamahiru urte hauetan eta horietatik bakarra galdu du.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun zentroa: 943 65 32 12
- Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Baliarrain.** Medikua: 88 90 03 (asteazkenak)
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etxea: 67 24 11
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irrua.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Orendain.** Medikua: 65 55 95
- Orexa.** Medikua: 68 22 28
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 46 11 11
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 943 67 25 36
 - ▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 943 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Morant R. Zaballarreta,1. (Tolosa). Telf.: 943 67 38 49.

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko-hitza.info
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
- Anoetaaldea.** 687 41 01 18. anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumea. Emakume bat behar dugu etxeko lanak eta haur bat zaintzeko. Telefona: 943 67 58 95 (arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara).

SALGAI

Baserrria. Leaburur baserrria salgai, 2001, urtean erabat berritua. 3.000 m2ko terrena, fruitu arborekin. Telefona: 649 26 85 44.
Etxebizitza. Iurrarendi ibiltokian familia bakarreko etxebizitza salgai. Hiru solairu, garajea, bi terrazak eta bi lorategi. Interesatuek deitu: 667 98 69 16.

ZIZURKIL ▶ KIROLA



Zizurkildarrak eta usurbildarrak bildu ziren Andatza. HITZA

Andatza Eguna izan zen igandean

Zizurkildarrak eta usurbildarrak bildu ziren; jokoak eta bazkaria izan zituzten

GARAZI AZKUE

Mendirako eguna izan zen igandean Zizurkil. Urtero bezala, maiatzeko lehen igandean, Andatza Eguna izan baitzuten zizurkildarrek.

Eguraldiak ederki lagundu zien mendizaleei, larunbatean egindako euri zaparradaren beldur baziren ere, eguzkia iriten zen igandean. Zizurkilgo eta Usurbileko jendea bildu zen Andatza.

11:00ak aldera bildu ziren guztiak, hamaiketako egiteko. Trikitilari eta bertsolariak izan

zituzten alaitzeko. 12:00etan hasi ziren herri kirolak. Usurbilgo eta Zizurkilgo haur eta helduak izan ziren horretan ere protagonistak.

Jokoen ondoren, bazkaria- ren txanda izan zen, norberak bere bazkaria eman bazuen ere, ondoren, kafea eta kopa antolatzaileek banatu zituzten.

Andatza Eguna Maiatza Saltsan kultur egitarauaren barruan kokatu dute aurten. Ainhoa Larrea, kultura teknikariaren esanetan, «oso ongi ateratu zen guztia, eguraldi ona izan genuen gainera».

AIZTONDO ▶ KIROLA

Aiztondoko pala eta fronteniseko finalerdiak

Larraulgo pilotalekuan izango dira asteburu honetan partidak, 15:30etik aurrera

G. AZKUE

Asteburu honetan jokatuko dituzte Larraulen Aiztondoko pala eta frontenis txapelketako finalerdiak.

Nesken taldean, Nahia Arrolak eta Oihane Arizetak, Ana eta Miren Amonnarriren aurka egingo dute. Frontenisean, Jon Ander Etxeberri eta Jon Ortiz, Larreta eta Gurrutxagaren aur-

ka arituko dira; eta Iñaki Murua eta Martin Artola, Saroi Oiarbide eta Ezenaroren aurka izango dira.

Partidak 15:30ean hasiko dira Larraulgo pilotalekuan. Finalerdiak direnez, asteburu honetan jakingo dute zein pasako diren azken partidetak. Eta, finala berriz, hurrengo asteburuan izango dira Adunako pilotalekuan.

AMASA ▶

Aitor Olano bigarren postuan Segurako proban

Oriako taldeko Aitor Olano amasarrek bigarren postua lortu zuen Seguran izandako XXX. San Krutz proban. 86,5 kilometrotan zehar ibili behar izan zuten parte-hartzaileek bizikleta gainean. Unai Aranzabal aurreratu zitzaion Olanori, bost segundutara gelditu zen amasarra, 2h 27:43 egin zuen irabazleak. Hirugarren lekuan, La Mobe- leko Jon Garate gelditu zen bigandean.

AIZTONDO ▶

Herritarren zerrendarako sinadura bilketa

Europako hauteskundeetako ezker abertzalea sinadura bilketa egiten ari da herrietan. Adunak, bihar, 9:00etatik 14:00etara egongo da sinatzeko aukera, udaletxean. Zizurkil, 9:30etik 13:30era udaletxean. Asteasu, osteguna bitarte izango da epea, 9:00etatik 15:00etara, eta bihar, 19:00etatik 21:00etara, udaletxean. Eta Larraul, ostrial goizean izango da sinatzeko aukera udaletxean.

VILLABONA ▶



Tximo herri ekimeneko partaideak. G. AZKUE

Tximo herri ekimenaren bilkura

Astero bezala, gaur ere bilduko dira Tximo herri ekimenean parte hartzen duten billabonatarrek. Eneko Gorostidiren aldeko taldeak, bilkura egin ohi du asteazkenero, Villabonako presoaren egoeraz mintzatzeko eta bere aldeko ekintzak prestatzeko. Gorostidiren lagunek taldea sortu zutenetik. Gaur ere bilduko dira, beraz. Bilerak Villabonako euskaltegian egiten dituzte, eta, 20:00ak inguruan biltzen dira guztiak. Bertako partaideek, herritar guztiak gonbidatu dituzte, bilkuretara etor daitezzen eta parte har dezaten. Gaur, 20:00etan Villabonako euskaltegian bilduko dira.

ZIZURKIL ▶

Hitzaldia izango da gaur Atxulondon

Denok batera, erabat! Maizta Saltsan kultur egitarauaren baitan, hitzaldia antolatu dute gaurko. Sos Racismoko taldekideek, Atzerritar legearen eta integrazioaren inguruan hitz egingo dute. Hitzaldia Atxulondo kultur etxean izango da, 20:00etatik aurrera. Eta ostiralean, haurrentzat filma eskainiko dute *Al-hamburako printzea*. Hau ere Atxulondon izango da 18:00etan.

VILLABONA ▶

Festetako futbol partidarako izen-ematea

Jaiak gertu direla-eta, Villabonako Onddo Gazte Asanbladak, herriko festetan jokatzeko futbol partidak antolatu ditu aurten. Futbol partida hauetan izena eman nahi izanez gero, Gazte Asanbladara jo beharko da, maiatzaren 17a baino lehen. Bestalde, hilaren 15erako festa antolatu dute herriko gazteek, eta, bazkarirako txartelak ere salgai daude ohiko lekuetan.

IRURA ▶ KULTURA

Erakusketa, hitzaldi eta jokoak Kultur Asteko egitarauan

Azken bileraren ondoren gaztetxoentzako argazki lehiaketa egitea erabaki da, datorren larunbatean egingo dena



Zazpiak Batman taldearen ikuskizun umoretsua izango da. HITZA

BIANDITZ IRAOLA

Kultur Astea datorren larunbatean zortzi hasiko da, eta jada egitaraua zehaztua du.

MAIATZAK 8, LARUNBATA

Gaztetxoentzako argazki lehiaketa, eta ondorenean erakusketa jarriko da.

MAIATZAK 15, SAN ISIDRO

17:00. Irurako Pilota Eskolako nesken arteko pala partidak.
19:00. Baserritarren zain-dariaren omenezko meza Mikel Deunaren Parrokian. Ondoren Irurako dantzarien saioa herriko plazan.
21:00. Herriko baserritarren zatia afaria Aizpurua jatetxean.

MAIATZAK 16, IGANDEA

16:30. Haurrentzako kirol-probak Etxezarreta kalean. Ondoren merienda.
18:30. *Kroketa zopa* haur-berbena Auskalo talde bilbotararen eskutik.

MAIATZAK 17, ASTELEHENA

19:30. *Euskara lardaskatzeko manerak* hitzaldi umoretsua.

MAIATZAK 18, ASTEARTEA

17:30. Jokoak zaharren biltokian.
17:30. Ikastolako ekitaldi aretoan kafe tertulia: *Auto-estimaren garrantzia* gaiaren inguruan, Kutxa Gipuzkoa Aulak antolatuta.

MAIATZAK 19, ASTEAZKENA

19:30. *Irura* herriaren bideoaren aurkezpena Elizan, bertso-lariekin.

MAIATZAK 20, OSTEGUNA

16:15. Jubilatuen ibilaldi neurtua herrian zehar.
17:45. Hitzaldia zaharren biltokian, izenburua: *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako giltzarriak*.

MAIATZAK 21, OSTIRALA

18:00. Ipuin kontaketa ludotekian.
22:30. *X* antzezlan Trinketean.

MAIATZAK 22, LARUNBATA

12:00. Pilota Eskolako ikaslearen xare txapelketako finalak.
16:30. Xake partidak gaztetxoentzat udaletxean.
16:30. Mus txapelketaren finala.
18:30. *Gaixotzea ez da txantxa* antzezlan pailazoekin.
21:00. Kantu afari herrikoia Gazte Alaiak Elkartearen.

MAIATZAK 23, IGANDEA

Mezaren ondoren. Irurako haurren eta Villabonako abesbatzen kontzertua Mikel Deunaren Parrokian.

ASTEAN ZEHAR

Pintura eta egur-lantze ikastaroretako lanak ikusgai izango dira.

ANOETA ▶ JAIK



Koadrila batzuetako ordezkariak, azken bileraren ondoren. B. IRAOLA

Ekainaren 5ean izango da Koadrilen Eguna

Herrian zehar egingo den Korrikaren moduko ekitaldiak emango dio hasiera

B. IRAOLA

Ekainaren 5ean izango da Koadrilen Egunaren III. edizioa. Festetako programaziotik kanpo antolatu, da eta bertan 18 koadrilak parte hartu dute. Dena dela, gazteenak dira hauek, eta zaharragoei ere deia luzatu nahi diete.

11:30ean herriko plazan elkartuko dira denak, Gaztetxera joateko. Hain zuzen Gaztetxetik hasi eta herrian bi kilometro eginez, Korrikaren antzeko ibilaldi txiki bat egingo dute antolakuntzan eta egunaren prestaketa aritu diren 18 koadrilen artean lekukoa pasatuz.

Bi kilometro inguru izango ditu Korrika txiki horrek, eta pilotalekuan bukatuko da. Behin han daudenean pregoia irakurriko dute, eta ondoren suziri bat bota, modu horretan jaiari hasiera emateko.

Ondoren kalejira bat izango da herrian zehar, betiere herriko musikarien laguntzarekin. Tabernaz tabernako jardueraren ondoren, 14:00ak aldera, berriro pilotalekurako

bidea egingo dute, herri bazkaria egiteko asmotan.

Bazkaldu ondoren jokoak izango dira herriko plazan, koadrila guztien artean. Aurten sari sinbolikoa izango da jokoak irabazten dituenarentzat.

Jokoan ondoren poteoari ekingo zaio, harik eta 21:00etan berriro pilotalekuan biltzen diren arte. Ordu eta leku horretan afaria izango da, jokoetako sari banaketaren ondoren.

Bilera maiatzaren 14ean

Koadrilen egunerako egitaraua finkatua dago dagoeneko, eta koadrila bakoitzak zein funtzio eta lan egin behar duen ere bai, baina oraindik lan handia dago egiteko eta hurrengo bilera maiatzaren 14an egingo dute. 19:00etan izango da, udaletxean.

Izan ere, oraindik bazkari-rako eta afarirako prestaketak egin beharrean daude, txartelak atera, salgai jarri... Koadrila zaharrenean parte-hartzea ere eskertuko lukete.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

inkestako emaitzak:

zer iruditzen zaizu XIV Orduko Martxan parte-hartzaileen kopurua mugatua izatea?

▶ JASOTAKO BOTOAK: 54
▶ ONDO: 28 (%52)
▶ GAIZKI: 26 (%48)

ARANTZAZU AZPIROZ ▶ ELITEKO EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI TXAPELKETAKO IRABAZLEA

GUTUN@K ▶



Ez dute argibiderik behar

2004ko apirilaren 24ean, Erbiaren Errekakoek idatzi bat azaldu duzue Gazteluko herritarrei zenbait argibide emanaz. Bertan gezurak esan ditugula adierazten duzue. Gazteluko herritarrek ez ezik Tolosakoak eta Tolosaldekoak ere badakite zein den egia eta nola jasan ditugun presio ekintzak, Gaztelun ez ezik Tolosan ere asko egin zirelako; denak gogoratzen dute larunbatero Tolosako ferian egindako kontzentrazioak, paskinen botaketa, kartela... eta abar.

Bestalde, idatzi berean presio haiek zergatik ez genituen salatu galdetzen duzue. Batzuetan ezin izan genuen frogatu nor zen egilea, adibidez nortzuk egiten zituzten pintadak; egilea nortzuk ziren jakindakoan salaketak daude ekintza horiek egiten zituzten pertsonen aurka. Salaketa horiek pilatu ziren epai batetan eta Tolosako Auzitegiko 2. Epaitegian epai-tuak eta zigortuak izan ziren. Data gogoratu behar al dugu zuen memoria freskatzeko?

Bilera ugari egin genituen zuekin, alferrikakoak, beti joaten zireneten dena edo batere ez, akordio batera iristeko ezertan etsitzeko inoiz ez prest; Batasuna eta EAJ-ren artean ere mahai bat osatu zen gai honekin irtenbide baten bila eta beti bezala kale; zuek nahi zenuten gutzia edo batere ez...

Gaurko egunera itzuliz, orain auzitegira joan zarete. Orduan ere bazegoen aukera hori baina ez zenuen erabili nahi izan.

Talde berriarekin elkarrizketa dagola diozue. Elkarrizketa badago zergatik joan zarete auzitegira eta Udalak abokatua hartu bere burua defendatzeko? Joko horren atzean zer dago? Udala zein akordioetara iritsi da Erbiaren Errekarekin? Gazteluko oposizioek ez dakigu ezer; Gazteluko herritarrek ere ez; Gazteluko herritarrei eman behar zaien argibidea hori da: zein den akordio hori edo zuen elkarrizketen ondorioa.

GAZTELUKO HERRITARRAK ▶ GAZTELU

«Badut Italian jokatu den Munduko Txapelketan aritzeko itxaropena»

Igandean Euskal Herriko txapeldun gelditu zen, sasoi punturik onenean egon ez arren; zaila ikusten du Olinpiar Jokoetan aritzea, baina saiatuko da horretan



DANI GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Joan den igandean elite mailako Euskal Herriko txapeldun geratu zen Arantzazu Azpiroz Bizkaia-Panda taldeko berastegierra. Hala ere, ez omen da sasoi punturik onenean. 22 urte besterik ez dituen arren, gazte mailan Espainiako nahiz Euskal Herriko Txapelketa ugari irabazi ditu eta mundialetan aritutakoa da.

Ezustekoa izan al zen igandeko garaipena?

Irabazteko aukera nuela ikusten nuen, baina azken unean arte ez dakizu zer gerta daitekeen. Hala ere, ez nago erabat ongi oraindik. Pixkanaka hobetzen ari naiz, baina oraindik falta zait ondo jartzeko.

Nola joan zen lasterketa?

Lehen itzulian, Azpiroren sei bat lagun geratu ginen ihes eginda. Naiara Telletxea taldekideak eraso jo, eta bakarrik geratu zen. Atzetik lasterketa kontrolatzen saiatu ginen beste taldekide batzuekin batera. Telletxea bakarrik iritsi eta 23 urte aspikoan irabazi zuen, eta nik bigarren eginda esprintean, elitakoa eskuratu nuen.

Zein lasterketa jokatu dituzu orain?

Espainiako Kopa Madrilen asteburu honetan, eta hurrengoan Gironan beste proba bat. Saiatuko gara zerbait egiten; halere, entrenatzaileak lasterketa horiek entrenamendu modura hartzeko esan digu. Espainiako Txapelketa iraila amaieran jokatu da. Zaila da proba hori irabaztea, baina

bertan nabarmendu nahi dugu.

Munduko Kopan aritu zara.

Bi lasterketa jokatu ditut. Salamancan bata, Belgikan bestea. Esperientzia polita izan da, baina oso gogorra ere bai. Egun bateko lasterketarako jendea oso ondo prestatzen da, eta alde handia dago beste probekin alderatuz.

Olinpiar Jokoetan aritzeko aukerarik bai?

Zaila da. Aurreselektzio bat egin du hautatzaileak, hamar laguneko, eta horien artean nago. Hiru lagunek bakarrik lortuko dute txartela. Somarrubak ziur, eta beste bizpahiruk aukera handiak dituzte. Lasterketan jendea nola aritzen den ikusi, eta hautatzaileak izango du azken hitza. Amaie-

ran Italian jokatu den Munduko Txapelketan aritzeko itxaropena dut.

Joane Somarriba taldekide duzu. Erreferentzia al da zuretzat?

Bai. Lau urte daramat berarekin eta beti laguntzeko prest dago. Jende gazteari erakutsi nahi diola atzematen da.

Asko entrenatzen al duzu?

Entrenatzaileak antolatzen dizkigu saioak. Egunerok aritzen gara. Lasterketa bezperan entrenatzen dugu gutxien. Bestela, askotan, hiru orduz aritzen gara. Lasterketetan aritu ahala, gero eta hobeto sentitzen naiz. Negu txarra igaro dugu; orain beste motibazio batekin nago.

Zein estrategia jarraituko duzu Espainiako Txapelketan?

Ibilbidearen arabera, erasotzen saiatuko naiz. Proba ikusi aurretik taldean aukerak nortzuk dituzten ikusten dugu, eta horrekin jokatu dugu.

Eskalatzailea, errodadorea.

Nola definitzen duzu zuren burua?

Errodadorea. Helmugara talde txikiari iritsiz gero, aukerak izaten ditut. Erlojupekoetan ere defendatzen naiz.

Txirrindularitzatik bizitzea zaila al da emakumeentzat?

Oso zaila, laguntza gutxi izaten dugu. Babesleak bilatzeko ere bai, ez digute ia publizitaterik egiten. Mutilena gaizki badago, neskena...

Txirrindulari modura. Zein da zure ametsa?

Munduko Txapelketa bat edo Olinpiar Jokoak irabaztea. Izugarrizko ilusioa egingo lidake.

IRAGARKI LABURRAK ▶



Anoeta. Ebebizitza eta garajeak, eraikuntza berriak, azken aukerak.

Anoeta. 370 m²-ko 2 pabiloiak modulotan salgai, berriak.

Tolosa. Etxe atxikia. 180 m², 4 gela, bainugela, eta komuna. Altzariz hornitutako sukualdea.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 140m²ko ebebizitza. Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, garaje itxia salgai. 16 m²koa.

Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera.

Donostia. Askatasunaren etorbidean 160 m²ko ebebizitza alokairuan, altzariz jantzia.

Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloi berriak salgai.

Donostia. Elkano kalean 2 ebebizitza salgai, eraberritzeko era iraiakin altuan.

Irura. 61 m²ko ebebizitza, lorategiarekin, inbertsiorako bikaina.

Alegia. 85 m²-ko ebebizitza salgai, kanpoaldera erabat, berrikuntza behar du.

Alegia. Berrikuntza behar duen ebebizitza salgai, hirugarren pisua, garajearekin eta trastelekuarekin hornitua.

Jatetxea Hernialden. Hernialden, beharrezko guztiarekin hornitutako jatetxea; aparkaleku zabalarekin eta sagardotegiarekin uztartu daitekeena da.

Errezil. Baserrira salgai, berritua, berogailuduna. 11.000 m² eta fruitu-erbolak ditu.

Aia. Baserrira salgai, bi solairuko, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin

hornitua.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garbiarekin.

Belauntza. 264 m²-ko eta 275 m²-ko pabiloiak berriak salgai.

Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai. Bost urteko 2.000 txakolin mahats.

Matxinbenta. Berritua beharrezko lau solairuko ebebizitza.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai dago, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko.

ALEGIA ▶ KIROLA



Soka-tiran ezik, gainontzeko frogetan lehenengo edota bigarren postuan sailkatu ziren. ARALAR INSTITUTUA

Gipuzkoako txapeldun, Aralar Institutuko ikasleak

Euskal soin jardueren alorrean Gipuzkoako txapeldun titulua lortu zuten Aralar Institutuko DBH 1eko ikasleak

OLAIA ESKITXABEL

Euskal soin jardueren, herrikiroren, Gipuzkoako Txapelketa izan zen Oñatin pasa den ostiralean, apirilaren 30ean. Bertan, eskualdeko ordezkariak izan zen: DBH 1eko mailan, Alegiako Aralar Institutuko ikasleak eta Anoetako Ikastolako gaztetxoak izan ziren. Azken hauek DBH 2ko mailan ere sailkatu ziren; lehenengo posturako lehian aritu ziren frogatuak egin ondoren, bi taldek puntuz berdindu ondoren. Azkenean, bigarren postuan sailkatu ziren.

Gipuzkoako Txapelketa txartela otsailean Anoetan egindako kanporaketan eskuratu zuten Alegiako ikasleak. Orduan, Laskorain (Tolosa), Hirukide (Tolosa), Jesusen Bihotza (Villabona) eta Uzturpe (Ibarra) ikastetxeetako gaztetxoek aurka aritu ziren.

Lehenengo postua eskuratu zuten Aralarreko ikasleak; hori dela eta, Gipuzkoako Txapelketa sailkatu ziren.



DBHko lehenengo mailako ikasleak lortutako sariarekin. HITZA

Txapeldunak, erraz

Soka-tiran, koskol apustuan, giza-frogan eta zaku-eramatean aritu ziren; Alegiako taldean, DBH 1eko 13 ikasle hartu zuten parte. Aurkari, Elgoibar-ko, Pasaia-Lezoko, Zumaiako, Aretxabaletako, Urretxu-Zumarragako, Azpeitiako, Anoetako, Oñatiko eta Donostiako ikasleak izan zituzten.

Fin aritu ziren alegiarrak;

soka-tiran ezik, gainontzeko frogetan lehenengo edota bigarren postua lortu zuten. Eta hori, «behin bakarrik entrenatuta», azaldu dute ikasleak.

Txapelketan parte hartzen duten lehenengo aldia izan arren, erraz lortu zuten Gipuzkoako txapeldun titulua, bigarren sailkatu zen taldeari 20 puntuko aldea atera baitzioten. Zorionak, beraz, Aralar Institutuko ikasleei!

KIROLA ▶

Bidarian, HITZA-ko kadeteen partidak

Eskuz banaka lau partida jokatuko dira pilotalekuan 19:00etatik aurrera

O. ESKITXABEL

Lau t'erdian eskuz banaka ariko dira arratsaldean Bidarian pilotalekuan. Kadeteek ariko dira aurrez-aurre gaurko HITZA txapelketako partidetan.

Mujika-Mitxelena; Eskude-

ro-Jauregi; Irazusta-Idoate eta Ojuel-Eizagirre ariko dira hurrenez-hurren norgehiagokan 19:00etatik aurrera.

Hurrengo partidak etzi, ostiralean, izango dira; benjaminak ariko dira norgehiagoka; hauek Albizturren jokatuko dute 19:00etatik aurrera.

ASTEBURUKO EMAITZAK ▶

Hitza txapelketako 17 partida jokatuko dira asteburuan:

BENJAMINAK (ALBIZTUR)

- ▶ Ander-Altuna 2 / Irazusta-Benadre 16.
- ▶ Urdangarin-Urdangarin 16 / Antoñanzas-Azkarate 9.
- ▶ Erdozia-Pagola 11 / Eskudero-Jauregi 16.
- ▶ Artola-Otamendi 16 / Aizpuru-Eizmendi 15.

ALEBINAK (ALEGIA)

- ▶ Gaztañaga-Iratorza 13 / Semperena-Goitia 16.
- ▶ Urretabizkaia-Kasatorre 16 / Iraola-Zubeldia 5.
- ▶ Azketa-Muñoz 3 / Eizagirre-Manterola 16.
- ▶ Galarraga-Egiguren 16 / Irazustabarrena-Zabala 3.

INFANTILAK (ADUNA)

- ▶ Iraola-Iraola 18 / Lujanbio-Eizagirre 0.
- ▶ Perez-Oliveira 5 / Esnaola-Olaizola 18.
- ▶ Gaztañaga-Aizpurua 18 / Urteaga-Oregi 6.
- ▶ Guerra-Murgiondo 18 / Elola-Dorronsoro 6.

ETORKIZUNEKOAK (TOLOSA)

- ▶ Erauskin-Aranzabe 22 / Lizaso-San Sebastian 21.
- ▶ Olaetxea-Errarte 0 / Zabaleta-Zabala 22.
- ▶ Yubero-Apezetxea 22 / Portu-Arruti 14.
- ▶ Amondarain-Esnaola 11 / Aspe-Otxotorena 22.
- ▶ Lizarra-Aranalde 17 / Aranzabe-Galarraga 22.
- Beotibar pilotalekuan.

ALEGIA ▶

'Herriarren zerrenda'-rako sinadura bilketa

Ekainaren 13an Europako Parlamenturako hauteskundeak direla eta Herriarren Zerrenda aurkeztu ahal izateko sinadurak jasotzen ari da ezker abertzalea. Nahi dutenek Alegiako udaletxean ere izango dute sinadura emateko aukera, 08:00etatik 15:00etara. Hileroko Orri kaleratu dute, bestalde; San Juan kalea da bertan lantzeko den gai nagusia.

IKAZTEGIETA ▶

Herri Urratsera joateko izen-ematea zabalik

Igandean, maiatzaren 9an, izango da Senperen Herri Urrats; hori dela eta, autobusa antolatuko dute. Interesatuek udaletxean eman dezakete izena; etzi, ostirala, izango da horretarako azken eguna. Prezioa, sei eurokoa izango da. Autobusa udal-txe aurretik abiatuko da 08:00etan; Senperetik herri-rako buelta bertara iristean erabakiko dute.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Hernalde. Erniopeko IV. mendi marxa igandean 06:00etan plazatik. Izen-ematea bertan aurretik. Haurrentzat beste marxa laburragoa izango da.

Tolosaldea. Datorren igandean Senperen izango den Herri Urrats festarako autobusak antolatuta ditu Galtzaundi Euskara Taldeak eta Ikaztegiako udalak. Izen ostirala arte eman daiteke bi lekuetan.

Orendain. *Komunikazioa eta adiskidetasuna:*

bizimodu osasuntsurako giltzarriak. Ongizate maila eta bizi kalitate hobea lortzen laguntzera begira, ariketa fisiko eta mentalarekin eta komunikazioarekin lotuta dauden funtsezko ohituren berri emango dute. Erretore etxean 17:00etan.

Zizurkil. *Atzerriar legea eta integrazioa* hitzaldia SOS Racismoko taldekideen eskutik 20:00etan Atxulondo kultur etxean.

ERAKUSKETAK

Hernalde. Olivia Sanchez. Akuairelak Ostatuan.

Ibarra. Nairobitarraren argazkiak Kultur Etxean.

Tolosa. Jose Mari Sasieta. Eskulturak Aranburun.

Tolosa. Gorren I.

Sentsibilizazio Astearen erakusketa Kultur Etxean.

Tolosa. Anjel Cuerdoren bidaien argazkiak. Aranburu Jauregian.

Zizurkil. Kakumako (Kenia) errefuxiatu kanpamenduko

Behin ihes egin behar izan genuen. Atxulondon.

ZINEMA

Alegia. Atom Egoyanen *Ararat* Gaztetxean 21:30ean.



Ibarra, Tolosako Zerkausia eta Zumardi txikia ageri dira. J.SAIZAR



Donostiako kaia eta beste paisaia batzuk ere badira. J.SAIZAR

Paisaiak akuareletan

TOLOSA ▶ Manuel Arretxe tolosarrak bere margolanak ditu ikusgai Sorron koadrodendan hilaren 16a bitarte; paisaiak dira gai nagusia



Tolosako kaleak eta bokoak ikus daitezke Manuel Arretxeren erakusketan, Sorron dendan. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Urte osoan bezala, egun hauetan pintura erakusketa bat dago Tolosako Sorron koadro dendan. Herriko eta inguruko artista afizionatuei bere lanak erakusteko aukera eskaintzen baitizkie enmarkazio denda honek.

Oraingo honetan Manuel Arretxe tolosarraren akuarelak daude ikusgai Korreo kaleko dendako erakuslehoetan. «Urtero Gabonetan jartzen zuen erakusketa, baina egun berezi horietako dekorazioarekin ez zuten behar bezala luzitzen. Horregatik oraingoan beste data hauetan jarri dugu erakusketa», adierazi dio HITZARI Sorron dendako Arantxak. Koadro batzuk saldu dituztela erantsi du.

Gai aldetik, paisaiak dira erakusketako nagusiak. Gehienbat Tolosaldeko paisaiak dira: Izaskun, Santa Klara, Ibarra... Baina badira kanpoko eta itsasoa gaitzat hartzen dituzten koadroak. Hilaren 16 arte egongo da ikusgai.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Jona Ander Arandia. Gaur 2 urte. Zorionak ebekoien partetik, bereziki Urko eta Iñakiren partetik.



URTE ASKOAN

Eñaut (Ikaztegieta). Aupa pelotari. 8 mnxu ebekoien partetik: aita, ama eta Uxue.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!